

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GARAIA BERRIKUNTZA GUNEAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2011-2012.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Garaia Berrikuntza Gunea SKoop.aren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena mamitu du, 2011 eta 201ko ekitaldiena. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu eta Sozietatearen kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten ditu.

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, Sozietateak bi ekitaldi horietan ez du ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko araudia bete eta iritzi hau txostenean bertan hainbat aipamen eta ez-betetzeen bidez euskarritu du.

Bada, HKEEk adierazi du kontratu espediente jakin batzuei, banaka 50 mila euro baino gehiago egiten dutenak, ez diela eskagarria den publikotasuna eman; zuzeneko esleipenak egin dira kontratazio publikorako sarbide librearen printzipioa urratuta; obra kontratu batean esleipena eskaintzak eskatuta gauzatu da, prozedura irekia egitea zegokionean, e.a.

Fundazioaren urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du alderdi esanguratsu guztietan 2011 eta 2012ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dutela, bi salbuespen bereizten dituela, zeinetan nabarmentzen den 2012ko abenduaren 31n 21,4 milioi euroan balioztaturiko izakinak egiteari buruzko zalantza egoera, Sozietateak aribidea gauzatzen duen higiezin merkatuak bizi duen pixkanakako narriadura aintzat hartuta.

Berebat, HKEEk hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz, kontratazio, ondare eragiketa eta bestelako alorretan.